EZAUGARRIEN KOADROA

KONTRATAZIO ORGANOA
Zuzendari Nagusia, Administrazio Batzordearen presidentearekin edo Administrazio Batzordearen idazkariarekin edo Administrazio Batzordearekin berarekin batera jardunez.

Kontratazio-organoak, kasuan-kasuan, egoki iritzitako pertsonari edo pertsonei ahalmena eman ahalko die, kontratuaren inguruko jarduera jakin batzuk gauzatzeko.

A) **KONTRATUAREN XEDEA.**
Euskalduna Kongresu eta Musika Jauregia, S.A.ren instalazioetan garbiketa zerbitzua ematea.

B) GEHIENEKO LIZITAZIO OINARRIA ETA BALIO ZENBATETSIA

AZALPENA	Lizitazio mota
Garbiketa zerbitzuaren urteko prezioa.	590.000,00 €
Garbitzailearen eskulan ordua, egunez.	18,90 €
Garbitzailearen eskulan ordua, gauez.	23,60 €
Garbitzailearen eskulan ordua, jaiegunetan.	24,50 €
Garbitzailearen eskulan ordua, jaiegun gauetan.	29,30 €
Peoi espezialistaren eskulan ordua, egunez.	21,80 €
Peoi espezialistaren eskulan ordua, gauez.	27,20 €
Peoi espezialistaren eskulan ordua, jaiegunetan.	28,20 €
Peoi espezialistaren eskulan ordua, jaiegun gauetan.	33,70 €

Zenbateko guztiek barne hartuko dituzte: era guztietako gastuak, zergen kostuak eta industria onura, BEZ izan ezik.

Kontratuaren balio zenbatetsia

LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA	**620.000**
BEZ	**%21 (130.200)**
GUZTIRA	**750.200**
ALDARAZIA, %20 GEHIENEZ	**124.000**
BALIO ZENBATETSIA	**1.488.000 (lizitazio aurrekontua+luzapena+aldarazia)**

C) KONTRATUAREN IRAUPENA
Kontratuaren indarraldia 1 urtekoa izango da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita; alabaina, amaitu baino lehen, bi alderdiek adosturik luzatu ahalko da, beste urtebetez, kontratuaren guztirako iraupenak –luzapena barne– bi urte gainditu gabe, betiere.

D) ESLEITZEKO MODUA
Irekia, Euskaldunaren kontratazioko barne jarraibideekin bat etorriz. Jarraibideok web helbide honetan daude: www.euskalduna.eus.

E) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EGUNA
Euskaldunako instalazioak: Abandoibarra 4, 48011 BILBAO.
2016ko abenduaren 19ko 12:00ak arte

Oharra:

Instalazioak bisitatzea ezinbesteko baldintza izango da enpresek lizitazioan parte hartu ahal izateko. Kontratuaren xede diren zerbitzuak gaur egun eskaintzen dituzten langileen subrogazio-eskubideen gaineko informazioa emango da bisita horretan.

2016ko azaroaren 8a (09:30ean) finkatu da instalazioetara bisita egiteko egun gisa.
(Ezaugarrien koadro honetako R atala)

F) KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Enpresaren sailkapena: Bi hauetako edozein izango da baliagarria:

1. **U taldea, 1. azpitaldea, D kategoria.**
2. **U taldea, 1. azpitaldea, 5. kategoria.**

Enpresa lizitatzaileak adierazitako sailkapenen bat ez badu, kaudimen ekonomiko-finantzarioa dokumentuen bidez egiaztatu ahal izango du, amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izandako urtean lortutako urteko negozio-bolumena erakutsita, gutxienekoak betez eta honako dokumentuak aurkeztuz.

- Gutxieneko baldintza: negozio-bolumen handieneko urtearen pareko urteko negozio-bolumenaren zenbatekoa 930.000,00 € (BEZ gabe) edo gehiago izan beharko da.
- Aurkeztu beharreko agiriak: zenbateko hori erantzukizunpeko aitorpena aurkeztuta egiaztatuko da, ezaugarrien koadro honetako "Finantza kaudimena" deritzon eranskinean adierazten den moduan.

G) BERMEAK
Berme hauek ezarri dira:

BEHIN-BEHINEKO BERMEA	Ez da eskatzen.
BEHIN BETIKO BERMEA	620.000 €-ren %10

H) KAUDIMEN TEKNIKOA EGIAZTATZEKO AGIRIAK ETA, HALA BADAGOKIO, KONTRATISTAREN SAILKAPENA.

Enpresaren sailkapena: Bi hauetako edozein izango da baliagarria:

1. **U taldea, 1. azpitaldea, D kategoria.**
2. **U taldea, 1. azpitaldea, 5. kategoria.**

Enpresa lizitatzaileak adierazitako sailkapenen bat ez badu, kaudimen teknikoa dokumentuen bidez egiaztatu ahal izango du, kontratu honen xede diren antzeko zerbitzu

eta lanetan izandako esperientzia erakutsita, gutxienekoak betez eta honako dokumentuak aurkeztuz.

- Gutxieneko baldintza: azken bost urteetatik, zerbitzu horietan, gauzatze handieneko urtean gauzatutzat egiaztatu behar den urteko zenbateko metatua 434.000,00 € (BEZ gabe) edo gehiago izan beharko da.
- Aurkeztu beharreko agiriak: zenbateko hori erantzukizunpeko aitorpena aurkeztuta egiaztatuko da, ezaugarrien koadro honetako "Kaudimen teknikoa" deritzon eranskinean adierazten den moduan.

Era berean, enpresa lizitatzaileek kaudimen teknikoa egiaztatzen duten honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, eskatutako kontratista-sailkapenaz edo hori ordezten duen dokumentazioaz gain:

- Kalitatea bermatzeko UNE-EN-ISO 9001 arauaren araberako sistema bat ezarri izanaren ziurtagiria, indarrean eta erakunde baimendu batek emana.
- UNE-EN-ISO 14001 arauaren araberako ingurumen-sistema bat ezarri izanaren ziurtagiria, indarrean eta erakunde baimendu batek emana.
- Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko OHSAS 18001 arauaren araberako sistema bat ezarri izanaren ziurtagiria, indarrean eta erakunde baimendu batek emana.
- Garbiketa lantaldearen ordezkari lanposturako aurkeztutako curriculuma. Gutxienez, 10 urteko esperientzia izan beharko du garbiketa-arduradun gisa, bezeroarekiko arreta eskaintzen duten eraikin berezietan edo 2. atalean ("irismena") jasotakoen antzeko instalazioetan.
- Jatorrizko ziurtagiriak, azken hiru urteetan antzeko zerbitzuak hartu dituzten hiru (3) enpresak gutxienez emanak, urteko gutxieneko zenbateko unitarioa 100.000 euro dela. Antzeko zerbitzutzat hartuko dira 2. atalean ("Irismena") jasotako instalazioen antzekoetan, 5.000 m2-tik beherako azalera duten eta publikoari arreta eskaintzen diotenetan egindako garbiketa lanak.

I) AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Kaudimen tekniko eta ekonomikoko baldintzak betetzeko behar besteko agiriak.
- Kontratua betearazteko moduari dagokion memoria metodologikoa, Baldintza Teknikoen Orrian jasotzen diren zehaztapenen arabera, honakoak zehaztuz:
  Eraikina garbitzeko plan-programa, metodoak eta egin beharreko operazioak jasota, operazioen aldizkakotasuna eta programa eta proposatutako baliabide materialak eta giza baliabideak adierazita eta lantaldearen egitura zehaztuta, arduradunaren berariazko adierazpenarekin, zerbitzuaren funtzionamendua, baja kasurako jarraitutasun-plana, oporrak, zerbitzu azkarra eta abar bermatzeko. Lizitatzaileak baldintza teknikoen orriaren 6.4 puntuan jasotakoa hartuko du kontuan memoria idazteko.
  Txostenak, gehienez, DIN A-4 formatuko 40 orri izango ditu, orrialde bakarrean idatzita 12 tamainako Arial letrarekin.
- Lizitatzaileak baldintza-agirirako proposatzen dituen hobekuntzak, Euskaldunak gastu handiagorik izan gabe.
- Euskalduna Jauregian emango den garbiketa zerbitzuari aplikatuko zaion erreferentziako lan-hitzarmena.
- Instalazioak bisitatu izanaren ziurtagiria, Euskaldunako arduradunek sinatu eta zigilatutakoa.

J) ESLEIPEN IRIZPIDEAK

60 puntu: Eskaintza ekonomikoa, honako banaketarekin:

a) **Garbiketa zerbitzuaren urteko prezioa: 55 puntu.**
Eskaintzen artean preziorik txikiena eskaintzen duenari 55 puntu emango zaizkio. Hori oinarri harturik, onartu diren gainerako eskaintzei modu proportzionalean emango zaie puntuazioa.
Formula: Yi =-------Pts x (Ob/Oi)
Hau da:
Yi: Puntuatzen den eskaintzaren puntuazioa.
Oi: Puntuatzen den eskaintzaren zenbatekoa.
Ob: onartutakoen artean, eskaintza txikienaren zenbatekoa.

b) Lanbide-kategorien aleko prezioak: 5 puntu (0,625 puntu lanbide-kategoria bakoitzeko: eguneko garbitzailea, gaueko garbitzailea, jaiegunetako garbitzailea, jaiegun gauetako garbitzailea, eguneko peoi espezialista, gaueko peoi espezialista, jaiegunetako peoi espezialista, jaiegun gauetako peoi espezialista).

Lanbide-kategoria bakoitza baloratzeko, honako formula hau erabiliko da:

%0 eta %7 arteko deskontuak era proportzionalean baloratuko dira, eta gehienez 0,50 puntu emango dira. Oinarriaren pareko eskaintzari 0 puntu emango zaizkio, eta %7ko edo hortik gorako deskontua proposatzen duen eskaintzari, berriz, 0,50 puntu.

%7tik gorako deskontuak era proportzionalean baloratuko dira, eta gehienez 0,125 puntu emango dira. %7ko deskontuaren pareko eskaintzari 0 puntu gehigarri emango zaizkio, eta hortik gorako deskontua proposatzen duen eskaintzari, berriz, 0,125 puntu. Gainerako proposamenak era proportzionalean baloratuko dira.

1.- Lizitatzaileak egindako deskontua %7koa edo hortik beherakoa bada:

$$\text{Puntuak} = \frac{0{,}50 \times \text{Eskaintzaren deskontua (\%)}}{7}$$

2.- Lizitatzaileak egindako deskontua %7tik gorakoa bada:

$$\text{Puntuak} = \frac{0{,}5 + [0{,}125 \times \text{Eskaintzaren deskontua (\%7)}]}{\text{(Onartutako gehienezko deskontua (\%)-7)}}$$

35 puntu: metodologia txostenaren kalitatea, honako ataletan duen xehetasun mailari erreparatuta:

A.- 20 PUNTU
Garbiketa planaren xehetasuna, zehaztasun mailari, planteamenduaren interesari eta proposaturiko ekintzei begiraturik. Eraikineko instalazioen mantentze lan integrala egiteko jarduera-planaren egitura, baldintza teknikoen agirian xedatutakoaren arabera. Ekitaldien arretara bideratutako garbiketa planaren xehetasuna.

B.- 10 PUNTU
Gauzatutako zerbitzuari eta dokumentuen kudeaketari buruzko informazioa. Sortzen den dokumentazio guztiaren sistematizazio, metodologia, maneiatze eta antolaketa

baloratuko da, informazio hori errazago kontrolatu, erabili, erregistratu, artatu eta eguneratu ahal izateko.

C.- 5 PUNTU. INGURUMEN IRIZPIDEAK
Euskalduna Jauregiaren garbiketa zerbitzuan iraunkortasuna hobetzeko ingurumen-neurriak baloratuko dira.

5 puntu: Zerbitzu-emateari egindako hobekuntzak
Lizitatzaileak proiekturako proposatzen dituen hobekuntzak zerbitzu honetako lan-arriskuak prebenitzeko; proposamen onenetan, egokitasuna, zehaztasuna eta Euskaldunarako operazio-interesa baloratuko dira.

K) ZIGORREN ZENBATEKOA
Kontratuaren arauren bat hautsi edo urratzekotan, kontratuaren enpresa esleipendunari jakinaraziko zaio, Euskalduna Garbitzeko Lantaldearen ordezkaritza lanak betetzen dituen pertsonaren bitartez, gertakizun-akta idatzita; jakinarazpenaren jasotze-frogagiria jasotzen duen pertsonak sinatuko du.
Zerbitzuaren prestazioaren betetze-maila garbiketa planaren helburuen egokitzapenaren arabera baloratzen denez, Euskaldunaren Zuzendaritzak honako faltak zigortu ahal izango ditu, zehapen ekonomiko bidez:

Arina: Euskaldunan arazo txikia eragitea.

Larria:
- Garbiketako lanen hutsegiteak, Euskaldunari arazo larria eragiten diotenean edo justifikaziorik gabe jarduera egun bat baino gehiago geldirik uzten dutenean.
- Garbiketa plana edo kontratu betebeharrak funtsezko eran edo maiz ez betetzea.

Oso larria: Sei hilabeteko epean bi falta larri egitea.

Falta arinak metatzearen ondoriozkoak ez diren falta larriei buruz, esleipenduna bat ez baletor falta sailkatzeko moduarekin, txosten tekniko bat eskatu ahalko zaio, esleipendunaren kontura, bi alderdietatik kanpoko eta biek bitartekaritzat onartutako profesional bati.

Zehapenen zenbatekoak ondorengo taulan zehaztu dira:

ARAU-HAUSTEA	ZEHAPENA
Arina	Ohartarazpena
Larria	Eskaintzen den garbiketa lanak hiruhilekoan eragindako zenbatekoaren %5-%10 bitartean.
Oso larria	Eskaintzen den garbiketa lanak hiruhilekoan eragindako zenbatekoaren %20, kontratua suntsiaraztea hautatzen ez bada; azken kasu horretan, berez, behin betiko fidantza betearaziko da.

Kontratua suntsiarazteko ebazpena ematen baldin bada ere, kontratuak, alabaina, indarrean jarraituko du, zerbitzuaren kontratu berria esleitzen den arte; horrenbestez, esleipendunak

zerbitzu hori ematen jarraituko du, bera ordeztu ahal izan arte, mantendutako instalazioa kaltetu gabe.

L) DERRIGORREZKO ASEGURU-KONTRATUAK

Enpresa esleipendunaren kontura izango dira bere lanak egiten dituen bitartean eragindako kalte guztiak, kalteon nolakotasuna eta bolumena edozein izanik ere.

Enpresa esleipendunak, bere kontura dauden arriskuak estaltzeko, esleipenaren aldian eta luzapenetan –luzapenik badago–, ondoren azaltzen diren aseguru kontratuak kontratatu eta edukiko ditu, aipamen gisa adierazita, eta ez mugapen gisa, xedea estaldura eraginkorra baita:

- Gaixotasun eta istripu asegurua kontraturako izendatutako langile guztientzat eta kontratistak kontrataturiko azpikontratistek enplegaturiko langileentzat, legeari edo sektoreko lan hitzarmenei edo hitzarmen partikularrei jarraituz.
- Kontratuaren xede diren lanetan parte hartzen duten ibilgailuetarako nahitaezko asegurua, ibilgailu propioak zein kontratatuak izan, nahitaezko nahiz borondatezko erantzukizun zibila kontrata daitekeen gehienezkoraino estalita.
- Erantzukizun zibileko bermea, OROKORRA, LAN ISTRIPUENA (PATRONALA ETA GURUTZATUA), EZBEHARREZKO KUTSADURA ETA LANEN ONDOKOA (24 hilabete), eta defentsa eta fidantza zibil zein kriminalak bermatu beharko ditu, ASEGURATU gisa EUSKALDUNA JAUREGIA jarrita –HIRUGARRENAREN IZAERA GORDEZ–, bai eta kontratu honen xede diren lanetan parte hartzen duten pertsona guztiak ere; aseguru-etxeek uko egin beharko diote aurretik aipatutako edozeinen aurka erabil litzaketen subrogaziorako edo akziorako eskubideei, hirugarren batzuei eragindako kalteengatik, horrelako kalterik eragiten baldin bada, eginiko erreklamazioen aurrean, kontratuaren xede diren lanen zuzeneko edo zeharkako ondorioz, egitez edo ez-egitez, kontratu honen xede den prestazioaren akats edo gabezien ondoriozkoak direnean ere.

Bermatu beharreko oinarrizko gutxieneko zenbatekoak hauek dira:

- Erantzukizun zibil orokorra (ibilgailuko zamengatik barne): 3.000.000 euro.
- Erantzukizun zibil patronala: 3.000.000 euro.
- Erantzukizun zibil gurutzatua: 3.000.000 euro.
- Ezbeharrezko kutsadurarengatiko erantzukizun zibila: 3.000.000 euro.
- Lanen ondoko erantzukizun zibila (24 hilabete): 3.000.000 euro.
- Azpimuga, biktima patronal eta gurutzatu bakoitzarentzat: 300.000 euro.
- Defentsa eta fidantza zibil eta penalak: Barne.

Aseguru kontratu horiei dagozkien primak ordaintzea kontratuaren esleipena duen enpresaren kontura izango da, eta haien zenbatekoa kontratuaren prezioen barruan sartu dela ulertuko da ondorio guztietarako.

Halaber, aseguru kontratu horien indarraldian ezbeharren bat gertatuz gero, kontratuaren esleipena duen enpresaren kontura izango da kontratuotan ezarritako edozein motatako gabealdi ordaintzea, halakorik ezarri bada.

Euskalduna Jauregia erantzukizunetatik salbuestea:

Aipaturiko kontratuetan, arriskua bere gain hartzen duen erakundeak Euskalduna erantzukizunetatik salbuesteko eta haren aurka berreskaerarik ez egiteko klausula bat jarriko da.

Kontratuaren esleipena duen enpresak Euskalduna Jauregiaren ordezkariari aseguru polizen kopiak bidaliko dizkio, onar ditzan, poliza horiek behin betiko formalizatu baino lehen.

Esleipena duen enpresak polizak indarrean atxikitzeko beharra izango du kontratuak irauten duen aldian zein luzapenetan, luzapenik egiten baldin bada.

Esleipena duen enpresak polizen kopiak zein primen ordainketak justifikatzen dituzten ordainagirien kopiak bidaliko dizkio Euskalduna Jauregiaren ordezkariari, dagokien dataren ondorengo hogeita hamar egunen barruan, bai eta, luzatu gabe, gertatzen diren ezbehar edo istripuen deklarazioen bi kopia ere.
Aseguru polizetako klausulen bidez, Euskaldunari eskubidea aitortuko zaio aseguru-etxeen aurrean zuzeneko informazioa jaso dezan, aipatutako arriskuengatik gertatzen eta/edo deklaratzen diren ezbeharrei buruz.
Euskalduna Jauregiak edozein unetan eskatu ahalko dio esleipendunari aseguruen kontratazioa, ordainketa, edukia eta indarrean egotea egiazta dezala, eta, halakoetan, esleipendunak polizen eta ordainagirien kopia osoa aurkeztu beharko du.
Klausula honetan ezarritako konpromisoen ildotik kontratatzen diren aseguruek ez dituzte mugatuko enpresa esleipendunari kontratu honen ondorioz dagozkion betebeharrak eta erantzukizunak; hortaz, eskatutako mugapen eta bermeen aldetik gainditzeagatik edo ez iristeagatik egozten zaizkion galera edo erantzukizun guztiei erantzun beharko die, bai eta aseguruaren gabealdien zenbatekoari ere.

M) BERME EPEA

Ez dago.

N) ALDAKETAK ONARTZEA

Ez dira onartzen.

O) FAKTURAZIOA ETA ORDAINTZEKO ERA

Fakturazioa 12 hiletan egingo da, garbiketa lanen urteko zenbatekoa hamabi zatitan banaturik. Era berean, garbiketa zerbitzuaren urteko zerbitzua kontzeptuak barne hartzen ez dituen ordu-kopuru gehigarriak hilero fakturatuko dira. Bi kontzeptuei faktura egiteko orduan indarrean dagoen BEZ gehituko zaie.

Ordainketa *confirming* bidez egingo da, faktura egin eta 30 egunera.

P) PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dago.

Q) KONTRATUA DESEGITEA

Erreferentziako lan hitzarmena ez betetzeak kontratua era automatikoan galtzea eragingo du, eta esleipendunak ezingo du zenbatekorik eskatu kontratua deuseztatzeagatik.
Eskaini diren baldintzak eta ezaugarriak modu nabarmenean betetzen ez direnean, esleipenduna jakinaren gainean jarriko da. Gabezia horiek hilabeteko epean konpontzen ez baldin badira, Euskaldunak kontratua deuseztatu ahalko du.

R) INSTALAZIOAK BISITATZEA

2016ko azaroaren 8a (09:30ean) finkatu da instalazioetara bisita egiteko egun gisa.
Instalazioak bisitatzea ezinbesteko baldintza izango da enpresek esleipenean parte hartu ahal izateko. Instalazioak bisitatzeko interesa duten enpresek horren berri eman beharko dute 2016ko azaroaren 7ko 12:00ak baino lehen, bisitaren eguna zehazteko; horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko dute info@euskalduna.net helbidera, enpresaren izena adierazita, bai eta Erakundetik joango diren pertsonen izenak ere.

S) ESLEITZEKO PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontratatzailearen profila: Webgunea: www.euskalduna.eus

Telefonoa 944.035.000
info@euskalduna.eus

OHARRAK

ERANSKINA: "FINANTZA KAUDIMENA"

ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA: ENPRESAREN KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Lizitatzen den kontratuaren[1] xedea:

_____(e)k
(NAN/AIZ/PASAPORTEA:_____),
_____ enpresaren izenean (IFK:_____)
eta hura ordezkatuz,

NIRE ERANTZUKIZUPEAN BERARIAZ ADIERAZTEN DUT::

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

1.- Jarraian jasotako datuak modu zorrotzean bat datozela onartutako eta aipatutako erregistroan utzitako urteko kontuetan jasotakoarekin; datu horiek lizitatzaileak itxitako azken hiru urteetan izandako **negozio-bolumenik handienaren** urteari dagozkio.

Kontuak zein ERREGISTROTAN utzi diren	EKITALDIA	NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZ gabe):

2.- Jarraian zehaztuta arrazoi batengatik, lizitatzaileak ez duela itxitako azken hiru urteetan izandako negozio-bolumenik handienaren onartutako eta utzitako urteko konturik (adibidez, dagokion erregistroan konturik aurkezteko obligaziorik ez edukitzeagatik edo duela gutxi sortutako enpresa bat izateagatik).

.....

_____

3.- Kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatu duela, honako agiriak aurkeztuta: erantzukizunpeko adierazpena, 303 eta/edo 390 ereduak edo Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren adierazpenaren baliokideak edo 200 eredua edo Sozietateen gaineko Zergaren baliokidea, jarraian adierazitako arrazoiarengatik (markatu gurutze batekin):

- ☐ Banako enpresaburua izatea, kontuak Merkataritza Erregistroan inskribatzeko obligaziorik gabe.
- ☐ Aurreko atalean adierazitako baliozko arrazoia.

Eransten diren BEZ zergaren edo sozietate-zergaren agiriak	EKITALDIA	NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZ gabe):

Horrela jasota gera dadin, agiri hau sinatu dut 20__(e)ko _____ren _____(e)(a)n.
(Lekua, data, sinadura eta enpresaren zigilua)

(1) Jarri kontratuaren xedearen izen osoa, Karatulako A.- KONTRATUAREN XEDEA atalean agertzen den moduan.

ERANSKINA: "KAUDIMEN TEKNIKOA"

EMANDAKO ZERBITZUEN ZERRENDAREN ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

Lizitatzen den kontratuaren[1] xedea:

_____(e)k
(NAN/AIZ/PASAPORTEA: _____),
_____ enpresaren izenean (IFK: _____)
eta hura ordezkatuz,

NIRE ERANTZUKIZUPEAN BERARIAZ ADIERAZTEN DUT:

Kontratuaren xede diren zerbitzu edo lan berberetan edo antzekoetan adierazitako esperientzia, ... **urteari**[2] dagokionez, jarraian zehaztutako zerrendan adierazitakoa dela:

ZERBITZUA EDO LANA[3]	Aipatutako urtean gauzaturiko zenbatekoa, BEZ gabe	Jasotzailea	Ziurtagiria edo egiaztagiria nork eman duen
Z_1			
Z_2			
Z_3			
Z_4			
Z_5			
Z_6			
Z_n			
Aipatutako urtean betearazitako **ZENBATEKOA GUZTIRA**, BEZ gabe	BATURA		

(1) Jarri kontratuaren xedearen izen osoa, Karatularen A atalean- KONTRATUAREN XEDEA agertzen den moduan
(2) Gauzatze handieneko urtea adierazi, azken bost urteen artean.
(3) Adierazi zerbitzu edo lanaren titulu osoa.
Horrela jasota gera dadin, agiri hau sinatu dut 20___(e)ko _____ren _____(e)(a)n.
(Lekua, data, sinadura eta enpresaren zigilua)